

Bilboko Foru Liburutegia inauguratu dute, berritzeko lanak bukatu ondoren

Erredakzioa. Bilbo

2003an hasi zituzten lanak amaitu ondoren, Bilboko Foru Liburutegia inauguratu zuten atzo Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldun nagusiak eta Belen Greaves Kultura diputatuak. Guztira, 18 milioi inbertitu dituzte. Lehengo liburutegia eta kontserbatorioa ziren eraikinak berritu dituzte, eta, gainera, beste eraikin bat altxatu dute Arbieto kalean, Portuko Markesaren kalearen eta Astarloa kalearen artean, Foru Jauregiaren atzean. IMB Bilboko arkitekto taldeak diseinatu du. Beiraz eta harriz osatutako kuboa da, eta langileen bulegoak ez ezik, liburuak gordetzeko apalategiak ere izango ditu aurrerantzean. Guztira, sei solairu ditu eraikin berriak. Haietako batean gordeko dute ondare bibliografiko baliotsuena; esaterako, 1472an Johannes Gersonnek Alemanian argitaratutako liburua. Eraikin berriarekin, 12.500 metro koadro izango ditu Bilboko Foru Liburutegiak. Hortaz, Bilboko liburutegirik handiena izango da.